

ARAUAK



1. Julene Azpeitia Lehiaketan honakoak izan daitezke parte-hartzaile:

- a) Durangoko eskoletako gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrak, 18 urte artekoak.
- b) 18 urtetik gorakoan, edonor.

2. Lanok euskaraz beharko dute idatzita egon, eta argitaratu gabeak beharko dute izan. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak ondorengo ezaugarri tipografikoekin idatzita aurkeztu behar dira:
Letra tipoa: Univers, Arial, Times New Roman edo antzeko bat.
Puntua: 11 edo 12. Lerroen arteko tarteak: 1,5.
3. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-deiturak, adina, maila, telefonoa, helbidea eta lanaren lema) kartazal batean sartuko dira eta azalean lanari jarri zaion lema bera idatziko da. E-mailez bidalitako lanen kasuan, ipuina, olerkia edo bertsoa fitxategi batean bidaliko da **"ipuina"**, **"olerkia"** edo **"bertsoa"** izenarekin eta egilearen datuak **"egilea"** izeneko beste fitxategi batean.
4. Epaimahaia Durangoko Udaleko Euskara Sailak izendaturiko zenbait adituk osatuko dute.
5. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak aurkezteko azken eguna **apirilaren 22a** izango da. Posta arruntaz edo posta elektronikoz bidali daiteke ondoko helbideetako batera:

JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

Durangoko Udala – Euskara Saila juleneazpeitia@durango-udala.net
Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO

6. Epaimahaiak **maiatzaren 26an** emango ditu ezagutzera irabazleen izenak. Gero, **ekainaren 5ean**, jendaurreko ekitaldi bidez banatuko dira sariak San Agustin kultur gunean.
7. Epaimahaiak sariren bat ez ematea erabaki dezake. Bestalde, saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, eta Udaleko Euskara Saila berauek argitaratzeaz arduratuko da.
8. Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

LEHIAKETAREN SAILAK

Ipuinak, Olerkiak eta Bertsoak

LHko 5. eta 6. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 1-3 orrialde artekoa	Luzera: 10-20 lerro	Luzera: 3 bertso
Saria: liburu sorta (100 €)		

DBHko 1. eta 2. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 2-4 orrialde artekoa	Luzera: 20-30 lerro	Luzera: 4 bertso
Saria: liburu sorta (100 €)		

DBHko 3. eta 4. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 3-6 orrialde artekoa	Luzera: 30-40 lerro	Luzera: 5 bertso
Saria: 150 €		

Batxilergoa – Lanbide Heziketa

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 4-7 orrialde artekoa	Luzera: 40-50 lerro	Luzera: 6 bertso
Saria: 200 €		

18 urtetik gora

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 4-8 orrialde artekoa	Luzera: 50-70 lerro	Luzera: 8 bertso
Saria: 600 €	Saria: 300 €	

*Oharra: olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.